


Politika

JOSEBA URRUSOLO SISTIAGA PRESO POLITIKO OHIA

"Gure borrokaren erradikaltasuna oso artifiziala izan da"

Pasaia 1957. Herria utzi zuenetik 35 urte iragan dira. 16 urte eman zituen klandestinitatean eta 19 espetxean: **"Preso izan denarentzat** ahalegin itzela da hedabideen aurrean jartzea, niri ez dit plazerik ematen", esan digu ETako kide ohi honek. Preso direnekiko ardurak eta bere herriarekiko hartu zuen engaiamenduak motibaturik mintzatu zaigu. Humberto Unzueta Kareaga kazetariaren Langraiz bisean bis (Erein) liburua hartu dugu solasaren abiapuntu, ETaren disidentziarekin aurrez aurre du ere izenburu.

MIKEL ASURMENDI @masurmendi 2016ko uztailaren 10a



Langraiz bidea delakoa, preso gutxiengo batena da. Zergatik ez da gehiago bildu?

"Langraiz bidea militantziaren jarraipena da.

Bide hori hautatu dugunok kartzela ezberdinetan egon gara, aspaldiko presoak eta berriak. 80. urteetan jada, preso askok ETaren bidearekiko kritikak egiten zituzten, areago, horietako batzuk azkenean Langraiz bidea hautatu genuenok baino askoz zorrotzagoak. Baina,

ASTEKARIA





Militantzian
erabaki
batzuk
hartu
genituen
eta orain
ere bai,
gure
ardura
ekarpen
politikoak
egitea
delako".
Argazkia:
Dani
Blanco

kritika horiek nola bideratu arazo handia izan da. Kartzelan ez duzu Kolektiboarena ez den beste biderik [EPPK-Euskal Preso Politikoen Kolektiboa]. Egin dezagun kalkulu bat: zenbat jendek segitzen du politikan kalera atera ondoren? Gehiengoak bere bizitza egiten du, manifiaren batera joaten da, eta puntu. Hau da, norberaren askatasuna kanpoan onartuta dago, presoari ez zaio onartzen ordea; barruan ez dago erabakitzeke eskubiderik. Presoari eskatu zaio parametro zurrin eta zorrotzen barruan "erabakitzea". Kolektibotik ateratzea oso zaila da. Ateraz gero, abokatu gabe geratzen zara, inolako laguntzarik gabe. Ordura arte izan duzun ingurua galtzen duzu.

Ausardia handia behar da, beraz.

Bai. Sekulako ausardia behar duzu zeure jarrera Kolektiboan planteatzeko. Eta ez bakarrik "kolektiboa uzten dut, eta neure bidea egiten dut" esateko. Barruan beste bide batzuk ere planteatzeko.

Kolektiboaren izaera zurrina eta zorrotza dela, diozu.

Bai. Presoa guztiz mugatuta dago. Kolektiboan dagoen mentalitatearengatik eta inguruan sortzen den presioarengatik jendeari legalitatearen bidetik urratsik ematea ezinezkoa egiten zaio. Erabakiak kolektiboaren ikuspegitik hartu izan dira beti, zure erabaki pertsonala galtzen duzu.

"ETAren disidentziarekin aurrez aurre", idatzi du Humberto Unzuetak. ETAn izan al da disidentziarik?

Disidente izatea... ez da erraza. Gurean, gogorra izan da naturaltasunez nork bere iritzia ematea. Iritzia planteatzea bai, baina planteatzen duzuna ordura arteko jarduera aldatzeko bada, berehala

talka egiten duzu “goiko”-ekin, eta arazoak sortzen dira. Ez da bakarrik ETAn izan. Horrelako erakundeetan onartzen da erakundea uztea: nekatuta zaudelako, zure familiarekin bizi nahi duzulako, itsasoz bestaldera joan nahi duzulako... Joera horiek ulertzen dira. Alegia, “gogorrek jarraitzen dute, besteek ezin dutelako”. Uste hori nagusitu da. Kontua da, ez dagoela disidentziarako arrazoi edo jarrera bakarra, militante bakoitzak berezko iritzia du.

Langraizeko presoen aniztasuna azpimarratu du ere Unzuetak.

Langraizen bildu ginenon artean jarrera ezberdinak ziren. Batzuek irtenbidea modu pertsonalean ikusten zuten, eta hori errespetagarria da. Beste batzuentzat, niretzat barne, Langraiz bidea militantziaren jarraipena da. Militantzia erabaki batzuk hartu genituen eta orain ere bai, gure ardura ekarpen politikoak egitea delako. Gu kritiko agertu ginenean, gure asmoa ez zen bide legaletik egitea, hau da, kartzelatik ateratzea lehenbailehen eta puntu. Ez. Gure ustez, hausnarketa sakona egin behar genuen Kolektiboan, eta orobat ezker abertzalean, borroka armatuarekin bukatu beharra ikusten genuelako, hori zen funtsezkoena.

Zergatik ez zen borroka armatuarekiko jarrera kritikoa areagotu kartzelatan?

Adibidez, askotan aipatu da Nelson Mandela. Mandelak bere biografian esaten du: “Gu saiatzen ginen kolektibo bezala funtzionatzen, baina praktikan ez zegoen kolektiborik, kartzelak berak eragozten zuen hori”. Mandelak berak erabaki zuen gobernuarekin bere kabuz harremanetan sartzea, presoek kolektiboaren arabera hori ezin zuela egin jakin arren. Eta egin zuen ondoko presoekin kontsultatu gabe. Hasi zen kartzelako arduradunekin harremanetan, eta hori tabu zen. Haren kolektiboak “Gobernuarekin guk negoziatu behar dugu”, zioen.

Mandelak ez zuen kolektibo bezala ezer negoziatzeko aukerarik ikusi. Guri ere berdin gertatu zaigu eta hark bezala geure urratsak eman ditugu.

Arnaldo Otegi eta Mandela parekatu dira zenbaitetan. Logroñoko kartzelatik egindako elkarrizketan: “Gure etsaiak Espainian daude, ez Langraizen”, adierazi zuen orri hauetan.

Otegik horrelako adierazpenak egin ditu eta modu pertsonalean antzeko mezuak bidali izan dizkie Langraizeko preso batzuei. Horrelako detaileak oso inportanteak izan dira. Baina, gure artean ez da Mandela modukorik izan. Hegoafrikako egoerak eta Mandelak jokatu zuen rola ez dute zer ikusirik izan hemengoarekin. Mandelak kartzelan eman zituen urratsak arazoa konpontzeko, onartu zituen barruko bizi baldintzak pertsonalki: 3. graduaren antzekoak. Irteerak kartzelatik. Hemen, zoritxarrez, ez da halakorik izan.

Zer iritzi duzu EPPKren ibilbideaz?

Kolektibo bezala funtzionatu nahi izan du, baina ez da horrela izan. Kolektiboak presoen iritzia adierazteko markoa izan behar du, baina praktikan gutxi batzuek erabaki izaten dute. Erabakiak orokorrean kanpoan hartuak dira, preso ohi batzuek hartzen dituzte, abokatuak tarteko. Garai batean Gestoras delakoak kudeatzen zituztenek. Horiek presoen inizatibak geldiarazi dituzte askotan edota dinamika batzuk ezarri: gose grebak, itxialdiak eta beste. Eta horiek gehienak kanpotik planteatuak izan dira.

Zer ondorio atera duzu ETaren borroka armatuaren bilakabideaz?

Yoyesena kolpe latza izan zen. Dena den, ETAn ez da dena zuri eta

Nire ondorioetako bat da, ezkorra, borroka armatua praktikatzeak sorrarazi duen mentalitatea. Parte-hartzea

ez da gurea zuri eta beltza izan

edo barne demokrazia bezalako ekimenak, printzipioz ezkerreko baloreak, ez dira landu. Aldiz, mentalitate horren bidez, erakundea helburu bihurtu zen. Erakundearen jarraipena izan da helburu, eta da. Gure garaikoek ardura eta konpromisoa geneukan, baina gure kontraesanak agertzen hasi zirela jabetu ginen. 1985etik aurrera ohartu ginen erreforma ari zela finkatzen, gustatu ala ez. Aljeriako negoziatioetan amaiera ordenatu eta duina lortzeko aukera galdu zen.

Harrez geroz, ETaren beste aro bat hasi zen. ETaren jarduera aldatu zen zure ustez?

Gure garaikoak beti saiatu ginen helburu eta pertsona zehatz batzuen aurka jotzen. Euskal Herriak bizi zuen errepresioaren arduradunak ziren, horiek ziren erakundearen helburuak. Gertatzen dena da, hasierako balore horietan, derrape bat ematen hasi zela. Adibidez, polimiliek politikarien aurka egin zituzten ekintzak guk ere egin genituen -gure artean oso gaizki baloratuak-. Horiek gure ahultasuna estaltzeko modua izan zen, oraindik indarra genuela itxura emateko, aurrera jarraitzeko. Harrezkero, politikariak helburu bihurtu ziren, politikariek errepresioaren ardura ere zutelakoan. Horiek ez ziren inoiz helburu izan, baina derrape hori eman zen. Jomugak zabaldu ziren, politikariez gain, kazetariak, epaileak... Baina hori ez zen erakundearen azterketa politikoaren ez militarren ondorio izan, aitzitik, aurrera jarraitzeko halabeharrez sortzen den mentalitate baten ondorioa izan zen. Hau da, iraganeko ekintzak egiteko ahalmena galduz joan zen, eta mentalitate hori zabalduz berriz. Mentalitate horrek justifikatu du lehenago justifikatzerik ezinezkoa zena. Baina are larriagoa da, mentalitate hori ezker abertzalearen inguruan zabaldu eta justifikatu delako. Beranduago, prentsan Oldartzen ponentziako

“sufrimenduaren sozializazioa ezartzea” irakurtzean pentsatu nuen, “ez da posible, ezin dut sinetsi horrela pentsa daitekeenik”.

Politikoki kritikoa zara, baina etikari buruzko gogoeta ere egin duzu.

Bai. Gure helburu politikoak lortzeko funtsezkoak ziren balore batzuk hankaz gora jarri genituelako. Ni zigor heriotzaren aurka egon naiz beti, baina guk aplikatu dugu. Galdera da: gaur egun zer hausnarketa egiten dugu horri buruz? Gaurko belaunaldiei ez zaie adierazi behar “borroka armatua bai edo ez”. Aldiz, horretan aritu garenok, jarduera horretan sortzen diren kontraesanez eta mentalitateaz hitz egin behar diegu.

Batzuentzat hori egindakoaz damutzea da. Traidorea izatera pasatzen zara.

Nik ez dut behin ere damu hitza erabili nire buruaz hitz egitean. Nik autokritika hitza erabiltzen dut.

Zer da autokritika egitea?

Erakundean sartu nintzen, bizi nintzen giro eta baloreetan, borroka armatua zilegi zela pentsatzen nuen. Konprometitu nintzen, bereziki “eskakeatu” ezin nuelako. Euskal Herriaren kausaren alde egon eta burua ezkutatzea imajinaezina zen niretzat: “Egin behar bada, nik ere prest egon behar dut”. Egun atzera begiratu eta egin dugunaz ikuspegi kritikoa landu behar dugu, baita nola egin dugun aztertu ere. Ardura hori gure baloreetan sartzen da, etorkizunari begira funtsezkoa. Hori da autokritika egitea.

Guk onartu ditugu legalki

**“ETAtik irteteko ausartago
behar da izan ETAn sartzeko
baino”, esan zuen Carmen**

ziren aukerak, ez ditugu
Gobernuak ezarritako
baldintza guztiak onartu.
Sortuk bere estatutuak
onartuak izateko legedi
osoa onartu zuen, alderdi
politikoen lege osoa

**Gisasolak ARGIAko orri
hauetan.**

Bai. Duela hogeitazortzi urte borroka
armatua bukatu behar zela erakunde
barruan edo kartzelan esatea oso
zaila zen. Baina bi aukera ditugu:
isiltzen zara ala pentsatzen
duzunarekin koherentea izateko
hausnarketa egiten duzu. Gu barruan
ginela, ez bakarrik borroka armatua
bukatu behar zela, oso kontzienteak

ginen bide legaletatik egitea inportantea zela, adibidez, irteteko
permisoak eskatzea. Kolektiboak ezetz zioen: “Nola bueltatuko zara
kartzelara, atera ondoren?”. Zergatik ez? Irlandan ateratzen ziren
normaltasunez. Gabonetan, adibidez. Inposatuta egon den
mentalitateak geldiarazi du bide hori.

Gaizki ulertutako altruismoa egon da, agian?

Gure borrokaren erradikaltasuna oso artifiziala izan da. Bizia galtzen
ahal genuela kontzienteak ginen, baina “dena emateko prest nago”
delakoa ez da egia. Kausa baten aldeko militante bihurtu ginen, eta
ahal genuena eman genuen ere, baina hemen ez da inor bizia emateko
gertu izan. Hemen egon da, adibidez, Itziarren semea kantak dioena:
“Itziarren semeak ez du lagunik salatzen...”. Hau da, tinko mantentzen
da etsaien aurrean. Baina errealitatea bestelako izan da. Torturaren
aurrean zaila da inor ez salatzea. Mitifikazio izugarria izan da,
errealitateak beste zerbaitek erakutsi digu.

**Espainiak euskal presoak ezarritako “salbuespeneko
espetxe legedia” aztertu du Iñigo Iruin abokatuak. 7/2003
legeari borroka juridiko bat planteatzea proposatu du.
Konfrontazioa arlo juridikoan beharrezkoa dela dio. EPPK-k**

erabaki behar du.

Legearen interpretaziorik zorrotzena egin du Iruinek. Hau da, egoera edo parametro politiko honetan ezin da urratsik eman, lege hori aldatu behar da edo juridikoki jorratu behar da legea aldatzeko. Baina, bien bitartean badago aukera hainbat preso ateratzeko. 2003ko lege aldaketen aurreko preso asko dago zigortuta eta aukerak daude bide legaletik urratsak emateko. Interpretazio txarrena eginez gero, ematen du ez dagoela biderik. Estatuko sektore batzuek planteatzen duten irakurketa da, txarrena. Bitxia da ezker abertzaleak ere hori egitea. Irunek orain planteatu duena guk aspaldi egin genuen: permisoak eskatzea. Langraizen presoak 3. graduari ateratzea. Guri esaten digute bidea hilda dagoela eta haiek hori bera hasiko dira orain urratzen. Adibidez, Frantziako zigorra Espainian kontutan hartzea, guk Auzitegi Gorenera eramandako helegitearen ondoren lortu zen. 2008tik lege hori martxan baldin bazegoen, zergatik 2013 arte ez zen ezer egin? Zergatik ez zen landu bide juridikoa alderdi sozialista Espainiako Gobernuan zegoenean?

“Guk legea baliatuko dugu, baina ez Langraizekoen baldintzetan”, esan dezakete.

Guk onartu ditugu legalki ziren aukerak, ez ditugu Gobernuak ezarritako baldintza guztiak onartu. Sortuk bere estatutuak onartuak izateko legedi osoa onartu zuen, alderdi politikoen lege osoa. Sorturen legalizazioa txostenean, 2011n, “ETA deslegitimatzekeko agente aktiboak direla”, idatzita dago. Ez bakarrik ETA, honen militanteak ere bai. ETArekin ekintzak terroristak direla dio zehazki txostenak. Hori guztia garai batean bere parametroetan jarritz gero, egun preso asko etxean egongo zen.

Sektore batek, ATA izenekoak, amnistia aldarrikatzen du.

Horiek diote Sortukoak traidoreak direla, legalitate osoa irentsi dutelako, finean, hauek kartzelan ez egoteko. Nik ez diot aparteko garrantzirik ematen. Noski, kartzelan sartu diren azken militanteek egoera oso txarra daukate. 2003ko lege berriarekin 40 urteko zigorra bete behar dute. Espetxeko onurak onartuta ere, batzuek 32 urte bete behar dituzte, eta hori legalki aldatzea oso zaila da. Gaur egun amnistia aldarrikatzea eramandako borroka balore bat bezala aldarrikatzea da. Eta, tamalez, tokiz kanpo dago. Amnistia ez da emango termino legaletan, gizartea ez dago dinamika horretan. Egun, zentzuzkoena, gertatutakoaz autokritika egitea da eta ETA lehenbailehen desagertzea. Erakundea presoentzat eta politika normalizatua egiteko zama besterik ez da. Batzuek "guk ez dugu zalantzarik egin dugunaz, ez dugu ezer baloratu behar", diote. Hori al da gizarteari egiten diozun ekarpena? Adibidez, Yoyesena ez duzu auzitan jarriko?

Hil zutenean ETAn zinen.

Erakundean nengoen, banekien gerta zitekeela. Nik ez nuen halakorik nahi. Nik garbi neukan bere hautu pertsonala zela, eta aukera zeukala itzultzeko legalki, bere eskubidea zela. Ez bakarrik bere kasuan, aurretik izan ziren beste kasuetan ere ados nengoen, eztabaidatu nuen, baina alferrik. Yoyesena kolpe latza izan zen. Dena den, ETAn ez da dena zuri eta beltza izan.

Eusko Jaurlaritzak

**espetxeko onurei buruzko gutuna igorri die presoek?
Preso gehiago sartuko al da zuen bidean?**

Proposamenak ondo daude, baina EPPK kontra jartzen da.

ETA lurperatu gabeko hilotza da, eta ez dakite nola enterratu. Hori egiten ez den bitartean, presoentzat ETA zama da

Kolektiboak zer proposatzen du ordea? Bada, praktikan zigor osoa betetzea. Orain dela bi urte Kolektiboak bide legala urratuko zuela esan zuen. Iruinek orain proposatu duena proposatu arren, denbora aurrera doa eta ezer egin gabe jarraitzen da. Duela 5 urte, aldiz, Sortuk legalitate osoa onartu zuen. Hori kontraesan izugarria da. Langraiz bidea, berriz, hilda dagoela diote. Non dago euren bidea? Besteek egiten dituzten proposamenak eta urratsak beti gutxiestean. Zer proposatzen diete presoen senideei?

ETAren desagertzea aipatu duzu, baina lehenago erakundearen desarmea izan behar dela argudiatzen da. Aurrerapausoak ematea ez da erraza, antza.

Bai, alde batetik, diotenez: “ETAk ezin du desagertu presoak kartzelan dauden bitartean”. Horrek ez du zentzu handirik. Egun ETAren izenean gelditzen diren gutxi batzuek ez dute ordezkatzeko ETA iraganeko izan dena. Gaur egun Sortun dauden ETako hainbat militante ohik ordezkatzeko ETA izan zena eta horiek kudeatzen dute presoen egoera. Desarmea eman edo ez eman, ETA amortizatuta dago. ETA desarmatu ondoren ez da ezer aldatuko. Desagertu dela esango balu, urratsa sinbolikoa litzateke. ETak ez du ekarpen politikorik egingo. Hau bukatuta dago. ETA lurperatu gabeko hilotza da, eta ez dakite nola enterratu. Hori egiten ez den bitartean, presoentzat ETA zama da. Legalitatean urratsak emateko, ETako edo Kolektiboko kide izatetik urrundu behar duzu, baina erabaki horietatik kanpo geratzea zaila da preso denarentzat. Presoak ez dauka non kokatzerik. Aldiz, erakundea desagertzen bada, hausnarketa kritikoa egin ondoren, ezker abertzaleak ere berea egiten badu, presoak ere parametro berri horietan bere bidea egin dezake, hasteko hobeto paratuko da. Hori gertatu ondoren, preso direnek eta izandakoek egin dezakegun ekarpen erreala elkarbizitzaren aldeko lana da. Horrek normalizazio politikoa ekarriko du herrian. Giro horrek lagunduko du plano

juridikoan urte askotarako zigorra duten presoen egoera bideratzen eta hobetzen. Ez dago beste irtenbiderik.

JOAN IRUZKINETARA



Kanal hauetan artxibatua: **Politika** | **Langraitz bidea**

Jaso egunero **ARGIA**ko albisteen
laburpena e-postan:

Idatzi zure e-posta helbidea

HARPIDETU

Politika kanaletik interesatuko zaizu...



2016-07-12 | Sara Arruabarrena Azkarate

**ETako bi kideren
zigorra baliogabetu du
Espainiako Auzitegi
Gorenak, tortura
salaketak ez
ikertzeagatik**

Beatriz Etxebarria eta Iñigo Zapiain ETako
kideei 2015ean ezarritako hamabosna

urteko kartzela zigorra bertan behera utzi du Auzitegi Gorenak, lehenengoz Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia aintzat hartuta. 2006ko urtarrilean Bilbon Enpleguko Institutu Nazionalaren (EIN) bulego bati erasotzeagatik zigortu zituzten Etxebarria eta Zapirain. Orain epaiketa errepikatuko da.



2016-07-12 | Jon Ander De la Hoz Arregi

"Gorriti eta bere animaliak" ikuskizunaren aurkako salaketa jarri du Equok

Usurbilen eta Ordizian egindako saioek "beharrezko udal eta foru baimenak dituztela" frogatzeko eskatu du alderdi ekologistak. Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazi dio kexa administratiboa.



2016-07-12 | ARGIA

Herri Elkargoaren hainbat aurkari instituzioa eratzeko lan taldean izango dira

Ipar Euskal Herriko kazeta.eus agerkariaren arabera, Herri Elkargo bakarrerako batzorde eragilea ia osatuta dago, Baionako bigarren ordezkaria izendatzea besterik ez da falta.



2016-07-12 | Jon Ander De la Hoz Arregi

Erresuma Batua: estatu burujabeak, batasunari eusteko


Erresuma Batuko herrialdeei barne auzietan “burujabetza osoa” ematea proposatu dute zenbait politikaririk, egitura batzuk partekatuta estatu federal bilakatzeko.



2016-07-11 | Jon Ander De la Hoz Arregi

Geldirik, biolentzia poliziala agerian uzteko

AEBetako afroamerikarren protesten ikur bilakatu da Leisha Evans atxilotu duten unean ateratako argazkia. Egun bat giltzapean eman ostean askatu dute.



2016-07-10 | Igor Estankona

LIBURUA **Barrutik**

Askatasunak leku bat hartzen dizunean egunerokoan, haren alde egin behar duzunean halabeharrez, beharrizan bihurtu dizutenean flotatzea, orduan berdin zaizu ze kartzelatan zauden, kartzela propioetan ez erortzea da garrantzitsuena: "Ez galdetu non nagoen, berriz ere./ Hemen nago,/ hotz izoztuko eta ur epeleko aberrian,/"

...



2016-07-10 | Estitxu Garai Artetxe

Alde

Alde. Orain inoiz baino gehiago. Eta alboan Mariano Rajoyren aurpegia lehen planoan.

Barre egin genuen, hanka sartze mundiala inondik ere, itzulpen traketsen antologiaren parte da jada. Apropos eginda ere zaila da kontrako mezua hain doi adieraztea. Barre egin genuen, bai, baina baita negar ere, euskarari hizkuntza funtz

...



2016-07-10 | Joxi Ubeda

DISKOA

Bi kantu zirraragarri

Bi kantu entzun daitezke Joseba Irazoki eta Lagunak taldeak Madrilgo Acuarela diskoetxearekin kaleratu duen binilozko singlean. Biak oso onak, zirraragarriak.

Rock, folk, blues eta psikodelia aireak suma daitezke kantuetan, doinu iradokitzaileak. Moldaketak eta apainketak oso landuak eta oso ongi eginak daude. Ukituak, x

...



2016-07-10 | Xabier Letona

Espainian torturatzen da

Edo Guardia Zibilek, poliziek eta ertzainek torturatzen dute, edo torturatu izan dute 1960 eta 2013 artean bederen. Nork aginduta, nork baimenduta? Lerro hauetan esaten dena arriskutsua da oraindik Espainian, salaketa bat jaso daiteke Estatuaren aldetik edo atxilotua izan. Ikusi besterik ez Burlatako *Aztnugal* pintaketekin N

...



2016-07-10 | Gorka Bereziartua Mitxelena

Smithsonian jaialdiaren harira, aspaldi eman behar zen eztabaida kulturala

Euskal kulturaz ezer ez dakien atzerritarrari zer esplikatuko diogu? Aukeratu egin behar baita, dena ezin da azaldu; baina ikuspegi topikoegiak ere ez dira komeni. AEBetako Smithsonian Folklife Festivalera euskal erakundeek eramandako programazioak zeresana eragin du. Irudi estereotipatuegia? Euskal folkloreaz lotsatuta dauden agintariak? Kulturatik bezainbeste politikatik duen eztabaida da.



2016-07-07 | Jon Ander De la Hoz Arregi

Israelgo enbaxadorea Gernikako Juntetxean hartu izana kritikatu dute

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteak egin dio harrera Daniel Kutnerri. Komite Internazionalistek ordezkariari emandako ahotsa salatu dute, Israel "herrialde normal bat balitz bezala".



2016-07-06 | ARGIA

Ikurrinaren debekua salatzeko masta bat hutsik utzi du Iruñeko Udalak

San Ferminetako txupinazorako dena prest dago. Udalak masta huts bat utzi du Iruñeko, Espainiako, Nafarroako eta Europako banderen artean ikurrina jartzeko debekua salatzeko.



2016-07-05 | Pello Zubiria Kamino

GuraSOSek errausketari buruzko deliberazio prozesu berria eskatu du Aldundian

GuraSOS elkarteak, aurreko egunetan agindu bezala, Gipuzkoan hondakinen kudeaketaren inguruan partaidetzazko deliberazio prozesu berri bat irekitzeko eskaria aurkeztu du Foru Aldundian.



2016-07-05 | ARGIA

Herritarren Batasuna aldarrikatu zuen Eusko Ekintzako Gomezek Albertian

"Batasuna borrokan, herritar batasunaren garaia da" lelopean ekitaldi politikoa egin zuen Eusko Lurra Fundazioak iragan igandean, uztailak 3, Albertia mendian.



2016-07-05 | ARGIA

UPNk "baldintza ideologikoak" ezarri zituen ETBren seinale digitala Nafarroan jasotzeko

Miguel Sanz eta Patxi Lopezen gobernuek bilera egin zuten Gasteizen 2009ko ekainean eta haren aktak adierazten du UPNk aldaketa ideologikoak eskatu zituela ETB Nafarroan ikusi ahal izateko.



2016-07-05 | [Euskalerrria irratia](#)

Ikurrina Iruñeko udal plazan egonen dela ziurtatuko du kalejira batek

Ahotsa.info-k argitaratu duenez, herri mugimenduak antolatu du, eta Nabarreriatik aterako da, 11:00etan, *Herrien ikurrak defendatu* lelopean.



2016-07-05 | [Ahotsa.info](#)

Gose greban hasi da Izaskun Lesaka preso politiko burlatarra

Bere senideek Etixerati jakinarazi diotenez, Poitiers-en (Frantziako Estatua) preso den Izaskun Lesaka euskal preso politikoak gose greba hasi du bere bikotekideak, Joseba Iturbidek, joan den ekainaren 28an hasitakoari batuz.



2016-07-04 | Manu Robles Arangiz
Fundazioa

Burujabetza nazionala eta auzi soziala

MULTIMEDIA - SOLASALDIA

Burujabetza nazionala eta auzi soziala" mintegian, 2016ko ekainaren 17an, Unai Apaolaza, Hedoi Etxarte eta Idurre Eskisabeleren hitzak. Independentismo eraginkorraz aritu zen Apaolaza, Nafarroak bizi duen destituzio faseaz Etxarte, eta euskalgintza eta feminismoaren arteko loturetz Eskisabel.



2016-07-04 | Jon Ander De la Hoz Arregi

Torturak Euskal Herrian: "estalitako errealitatea aitortzeko" exijitu diete politikariei

Frankismo garaitik gaur egun arte torturak jasandako 80 lagunek egin dute eskaria. "Gure herriaren historian letra larriz" idatzi beharreko gaia dela adierazi dute.

▼ BABESLEA ▼



AZKENAK



**TMB Arraiz: 100 egun
greban lan baldintza
duinak eskatzeko**



**Alferreko eta
inposatutako
azpiegituren aurkako
jardunaldiak Baionan,
uztailaren 15etik 17ra**




Nola "feministizatu" zuten sanferminetako txupinazoa?



Borrokatu iceberg matxistaren oinarriak

Junet Lopez: Kubako tailer repentistek aitona mitikoari biloba deskubritu ziotenekoa



Be the first of your friends to like this



EGILEA



MIKEL

ASURMENDI

@masurmendi

1998 - 2015 KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.L. Nor gara - Kontaktua - Mapa - Lege oharra - Iragarri - Harpidetu - Tel: 943 371 545



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.

LAGUNTZAILEAK:



ametzagaiña
taldea
ARGIA

an@za
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza
interaktiboa

ADUR software productions

LUDITOYS